

**FRANTZIAKO ZIENTIFIZISMOAREN ERAGINA E.H.A.E.aren
IRAKASKUNTZ EMAITZETAN XIX. MENDEAN ZEHAR.**

ADOLFO RODRIGUEZ BORNAETXEA *

Euskal Herriko Unibertsitatean Hezkuntzaren teoriarako irakasle eta Pedagogia sistimatikako sailburu.

Sarrera gisa:

Arrigarria iruditzen bada ere izenburu honetan parte hartzen duten hitz guztiek bere esanahi zehatza dute. Agian, eduki zehatza eta desohizkoa, baina funtzeskoa beraz.

Saio apal honetan Euskal Herriko Historian ornen dagoen hutsune garrantzitsu bat lagundu nahi da argitzen. Honetarako gogora dezagun Ignacio Olabari eta Valentin Vazquez de Prada irakasleek XIX. mendeko Euskal Herriko gizarteari buruz egin izan diren azterketetaz esaten digutena¹: Hau da, pasa diren bi mendetako eguneroko bizitza ondo ezagutzeko, orduko giza-talde, instituzio, pentsa-molde eta abar luze baten ikerketa berri bat egitera behartuta gaudela.

Azken hauxe esateko haiek aipatutako arrazoi guztiak onartzen ez baditugu ere² erreibindikaturako premiazko ardatzak txalogarriak dira. Euskal Herriko Historiaren argibiderako, giza aldaketeetan aztertu behar dira, besteak beste, giza-instituzio desberdinen esanahia edo jakintza mota baikoitzaren azalpenak eta ez soil-soilik ekonomiaren garapenaren gain eraikia dagoena.

Horrela egiten bada mentalitateen historia, oso adierazgarria bihurtzen zaigu betidanik eskema orokorregien ondorioa izan diren hemengo hainbeste mentalitateei buruzko aurre-iritzia lurjota uzten dela.

Hau da eta ez besterik Historiologia konkretu batek³ proposatzen duen bidea eta, hain zuzen ere, gaurko honetan, nahiz eta eskematikoki, bilakatzeko saiatuko gara.

(1) Olabari cortazar, I-Vazquez de Prada, V. «La Sociedad Vasca en los siglos XVIII y XIX: Estado de la cuestión». Eusko Ikaskuntzaren IX. Kongresuaren aktetan. Bilbo 1983.139 orrialdetik 153 etara.

(2) Bereziki goian aipatutako lantxoan Fdz. de Pinedo eta Fdz. Albadalejori egindako kritika osoa. Ikus bertan azaltzen diren 28 eta 29 oharra (ibidem.)

(3) Ikus. J. Donzelot, F. Muel, Ph. Ariés etab.

Hitzez hitz:

- Euskal Herriko Adiskideen Elkartearen (E.H.A.E.) Historia ikerturik dugu oso, baina ilustrazioaren garaiari dagokiona soilik: XVIII., mendean, beraz.

Hala eta guztiz ere, E.H.A.E.ak orain arte dihardu. Bere historian zehar gorabeherak izan badira ere «Argien Mendea» deritzanaren ohizkoa den gelditze horrek ikerlariarengan nolabaiteko itsutasuna sor dezake, beharrezkotzat jotzen dugun ikuspegi zabala galduz. Hemen egingo dena ez da hori izango.

- E.H.A.E.aren irakaskuntz emaitza bakartzat Bergarako Erret Mintegia hartzen ohi da. Nahiz eta espezialisten eritziak hori ez onartu⁴behin eta berriz distiratsuen denak sakontzeko beta uko digula esan genezake.

- Frantziako zientifizismoaren eragina:

Dagoeneko letren munduari dagokion Frantziatik erakarritako baldintz desberdinen ikerketa egina dago⁵.

Zientifizismoaren eraginak, berriz, askotan aipatua izan arren, ez du behar-lukeen azterketa sistematikorik izan. Hau garrantzitsua dateke zeren eta zientifizismoari progresuaren ideologia atxeki ohi zaio garai horretan ideologi horrek zuen zama politiko eta gutzi⁶.

- XIX. mendean zehar:

Frantziako iraultzaren ohiartzunak Euskal Herrian bizkor samar hedatu baziren ere beraien ondorioak XIX. mendea oso aurreratua izan arte ez ornen ziren eguneroko bizitzan agertu⁷.

Aintzinako erregimenaren (eta berari zegozkion mentalitate eta instituzioak) desagertpena, beraz, ez da ondo ulertuko XIX. mendean sortzen diren aldaketak arakatu arte.

(4) Silvan, L. «Visión crítica del esfuerzo cultural realizado por la R.S.B.A.P. «Buletinaren eranskin 3 eta 4. Donostia 1981.398-401 orr.

(5) Areta Armentia, L.M. *Obra literaria de la R.S.B.A.P.* «Sancho el Sabio» Gasteiz 1976. 315 orrialdetik 365 etaraino bereziki.

Tesi Doktoral hau, dauden lanen artean honetaz ematen dituen datuegatik, pena merezi du hona erakartzea.

(6) Progresuaren ideologiari buruz ikus daiteke:

- Chatelet, F. eta beste batzu.*Historia de las Ideologías* en bigarren tomoko «las ideologías del progreso» ZERO-ZYX. Madrid 1978. 17 tik 85 orrietara.

-Euskal Herriko historia politikoari buruz, ostera, aipa daitezke:

- Beltza.*Del Carlismo al Nacionalismo Burgués.* Txertoa. Donostia. 1978.

- Garmendia, V.*La Ideología Carlista.* Gipuzdoako Foru Aldundia. Donostia. 1985.

(7) Caro Baroja, J. *Inroducción a la Historia Social y Económica del Pueblo Vasco.* Txertoa. Donostia. 1974. 69 orrialdean.

Pista berriak jorratu nahian: Marrazki Eskolak.

Beraz E.H.A.E.aren irakaskuntz emaitzak (nahiz eta solte batzuk besterik ez izan) eta Frantziako zientifizismoaren eragina orain arte XVIII. mendeko eskemetan kokaturik egon badira ere aztertuko ditugu.

Horrela, elementu sasi-ezagun batzu beste eraz konbinauz orduko mentalitatei buruz ezagutzen ez diren konbinaketak atera daitezke.

Dena dela ez dugu ideien muntai huts bat egin nahi, datu konkretuetatik abiatu baizik. Horregatik hautatu ditugu E.H.A.E.aren irakaskuntz emaitzak:

A) Bergarako Erret Mintegia E.H.A.E.rekin batera 1794ko gerran eta Independentzi delakoaren gudan (1808-1813) desagertuz baldin badoaz beraien irakaskuntz emaitzetako batzuek jardunen dutelako: Marrazteko Eskolak Kasu.

B) E.H.A.E.aren historian, bertako elemento inportantearen bat bada go ere, oso ezagunak baitira bere jarrerak Madrilgo Gobernuaren alde⁸.

E.H.A.E.ak sortutako marrazki eskolak⁹ hartuko ditugu aztergai zeren eta irakaskuntz eredu berri bat dirudite (ideatikoa, zientiazkoa...) eta XIX. mendean dihardutelako.

Ez da hau orduko erreinuan azalduko den diseinu eta marrazki irakas-kintzarako egitura bakarra¹⁰.

Valenciako eskola nahiz Barcelonakoa garai berdinean sortu ziren¹¹ bietan Frantziako zientifizismoaren eragina aski frogatua izanik. Burgoseko kasua (1776) edo Madrilgoa (1801), Malagakoa (1786) edota Santanderrekoa (1803) antzekoak dira.

Dena dela adibide guzti hauetan ez dago marrazkitaz ezta irakaskuntzari buruz mentalitate berberarik.

(8) - Rdz. Bornaetxea, A. «El descubrimiento del Wolframio por los Hermanos Elhuyar y sus relaciones secretas con la corona española» I. Congreso Latinoamericano de Hª de las Ciencias y de la Tecnología-n aurkeztutako komunikazioa. La Habana, Cuba 1985 ko uztailearen 26 an.

- Torrija Herrera, C. *El libre comercio vasco con América. Arabako Foru Aldundia. Gas-teiz.* 1985.

(9) «Extractos de las Juntas Generales de Vitoria de 1780». 106 orr.

(10) Escolano Benito, A. «Las escuelas de diseño y dibujo y la renovación de las artes industriales en la segunda mitad del siglo XVIII». III. Coloquio de Hª de la Educación. Universidad de Barcelona. 1984.

(11) *Barcelonakoa 1775-ikus* «Estatutos de la escuela gratuita de diseño de Barcelona», *Mer-katalgo Juntako Artxiboan. Zentraguneko Bibliotekan* 108. legaj. 1776ko ataroaren 21a. *Valenciakoa 1778 sortu beharra zegoen baina 1784 arte ez zen martxan jarri-ikus Rodriguez García, S. El Arte de las Sedas Valencianas en el siglo XVIII.* Inst. Alfonso el Magnánimo, Valencia 1959.450-454 orrialdeetan.

Valenciako eskolan, Barcelonan eta Burgosen (lehenengo bietan ziriko produktiorako; hirugarrenean, berriz, artilerako) marrazki artistikoa delakoa azpimarratzen da.

Malagan edo Santanderren bertan arte hutsa da irakasten dena.

Marrazki eta ikaskintzaren kontzeptuetan datza E.H.A.E., aren marrazki eskolen bereizketa. Jose Joaquin de Landazurik holaxe esplikatzen zigun:

«Producción feliz de esta Real Sociedad y de singular utilidad han sido las escuelas gratuitas de dibujo que se han erigido, además de la de Vergara en el territorio de esta provincia de Guipúzcoa, la una en la ciudad de San Sebastián, fundada por los socios que residen en aquella ilustre república y fomentada y sostenida a expensas de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País. La otra, aunque erigida en la Real Fábrica de Armas de Placencia y con la aprobación de S.M., tiene la gloria de la Real Sociedad Vascongada de haberse debido su erección a influjos y desvelos del socio supernumerario, el gobernador de estas reales fábricas, D. José María de Lardizabal, subdirector, quien le dictó las órdenes con que se gobierna.

Estas utilísimas escuelas darán el adelantamiento y enseñanza de que tanto necesitan muchas de las artes mecánicas que se ejercen el País por medio de arquitectos, carpinteros, agrimensores, canteros, albañiles, herreros, fabricantes de loza y otros; y contribuirán a la mayor perfección de las obras que se ejecutan con los conocimientos que presta el dibujo en sus respectivas clases. Este rasgo de utilidad pública, debido a la vigilancia de la Real Sociedad Vascongada, que ha introducido y fomentado en esta provincia y las otras dos del País Vascongado tan importante y útil objeto, la hará eterno honor y la adquirirá inmortal reconocimiento entre cuantos reflexionen sobre las ventajas que han de resultar de unos establecimientos como éstos, en beneficio y utilidad del público»¹².

E.H.A.E.aren marrazki eskoletan ez zen beste eskoletan bezala gero moda desberdinetan (ziriko nahiz artilea) azalduko zenik ikasten, produktioaren antolaketa (edo produktoa bera) baizik.

Ikuspegi utilitarioak, beraz, egile desberdinengandik orohar¹³ edo Frantziako eraginapean¹⁴ baina jakintzaren jabetza mota berri bat (modernoa) suposatzen du.

(12) Landazuri, J.J. *Historia de Guipúzcoa*. Biblioteca de la Cultura vasca. Donostia. 1921.I.Tomoa 22orrian.

(13) Silvan, L. Op cit- 4.oharra- 400orrian.

(14) Areta Armentia, L.M. Op cit- 5. oharra-343tik 358 etara.

Frantziako eragin honek azterketa sakonago bat mereziko luke horretaz dauden datuak ugarriak direla eta.

Hau da hau Espainako erreinuan egindako beste marrazki eskolen porroten arrazoia, Valenciakoa kasu.

Escolano edo Rodriguez Garcia irakasleek¹⁵ gremioen oposizioa aipatzen digute. Hauen ustez Antzinako erregimenaren egiturek ezin zuten jakintzaren besterenganakuntza klase hau onartu.

Euskal-Herriko marrazki eskolen ezaugarriak:

Hala eta guztiz goian aipatutako hau ez da Euskal Herrian gertatzen. Alderantziz, gremioak eta eskola berri hauek osagarriak dira eta kasu batzuetan (armagintzan, adibidez) geroxeago sortuko diren eskola teknikoen haztarnak (Eibarko armagintzakoa 1913) aztertzen ari garen marrazki eskola hauetan ditugu.

Tolosan¹⁶ nahiz beste lekuetan eraiki zituzten eskolak alde batera utzita Eibarko kasuan geratuko gara ahal den gehiena sakontzeko.

Jakina denez 1865 rako gremioen giza-antolaketa bukatutzat eman dezaiegu¹⁷. Armagintzako gremioak lau izanik (kañoigileak, giltzagileak, kutxagileak eta aparejeroak) bere ikaskintzarako prozedura bereziak zituzten aspaldidanik baita bere jarrera politikoak ere¹⁸ baina ez ornen du ematen eskola berri hauen kontra zihoaztenik.

Ostera beste zenbait tokitan gremioen barrungo funtzionamendua atzerakoaia azaltzen bada ere¹⁹ kasu honetan guztiz moderno-teknikoa azalduko zaigu²⁰ jakintzaren egitarauketa berria erabat txertatua izan bait zuten Euskal-Herriko orduko gremioek.

Politikan foruzaleak baina jakintza mota berrien alde (jakintzaren baitan eta beraren transmisio prozeduretan).

(15) Ikus 8.oharra.

(16) Ikus Tolosako Udal-etxeko Artxiboetan eta Gorasabel, *Casas memorables de Guipúzcoa* Tolosa 1807. Birargitalpena «La Gran Enciclopedia Vasca» Donostia, 1972.

(17) Larrañaga, R. *Síntesis Hª de la Armería Vasca*. G.A.K., Donostia. 1981. 103orrian.

(18) Larrañagak-op cit-diosku armagintzako gremioen fueroen aldeko jarrerak behin baino gehiagotan Erregearen aurka egotera eraman zituela. Era berean Erregeak gremioei bere Armadako militarrek izateko ahalmenak eman zizkienean azken hauen erantzuna ezetza izan zen. Ez ohi ziren, beraz, oso zentrogunezaleak.

Euskal Herriko gremioen historia bere eguneroko jardunera ezagutzeko kontsulta daiteke Garmendia Larrañaga, J. *Gremios, Oficios y Cofradías en el País Vasco*. g.a.k. Donostia. «Documento Saila».

(19) Lehen aipatutako Valenciako marrazki eskolaren kasua adibidez.

(20) Caro Baroja, J. op. cit.-7. oharra-

«En el País hay cosas que son de una modernidad absoluta...» 27 orrialdean.

Eguneroko bizitzaren ikuspegiak, alde batetik, eta jakintzaren besterenganakuntzak bestetik historian orokorra den ikuspegi bat-Antzinakoren erregimenaren eta Aro Modernoaren arteko gatazkarena kolokan jartzen digute.

Era berean hauen ondorioen gain eraikitako zenbait irakurketa politiko (karlistak-liberalak) zeharo kolokan geratzen dira.

Nahiz eta gaurko honetan, apika, ez dago gehiago sakontzerik ildo hone-tatik doazen azterketa motak premiazkoak direla esan egin beharko genu-ke; baina bakoitzari berea eta gero gerokoak.